

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



PRACTICUMAREN DISEINUA ERIZAINZAKO GRADUAN

Marijose Uranga Iturriotz eta Pilar Gil Molina

Eskerrak eman nahi dizkiegu erizaintzako praktikumaren diseinuan parte hartu duten erizainei eta ikasleei eta baita ere, ikasleen prestakuntzan, practicumean, parte hartzen duten erizain guztiei, beren profesionaltasunagatik eta eskuzabaltasunagatik.

Koordinatzaileak:

Uranga Iturriotz, Marijose* eta Gil Molina, Pilar**

Egileak:

Alberdi Erice MJ*, Barandiaran Lasa M*, Eizmendi Garate I*, Elordi Güenaga U*, Elorza Puyadena I, Gil Molina P*, Huitzi Egilegor JX*, Izaguirre Otaegi Andrea, Jimenez Marcos MA*, Lasa Labaca G*, Liceaga Otazu N*, Mayoz Echaniz I*, Pereda Goikoetxea B*, Tazón Ansola P*, Ugartemendia Yerobi M*, Uranga Iturriotz MJ*, Zinkunegi Zubizarreta N*, Zubeldia Etxeberria J*.

*Erizaintza II Saila. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Donostia Atala.

**Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU)

2021eko uztaila.

ISBN: 978-84-09-36417-6

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	ERIZAINZAKO GRADUA	6
3.	TITULAZIOAREN EGITURAREN DISEINU PEDAGOGIKOA	13
4.	PRACTICUMAREN DISEINUA ELKARLANEAN	17
4.1.	IKASKETA-EMAITZAK	20
4.1.1.	Ikasketa-emaitzak zehazteko metodologia	20
4.1.2.	Ikasketa-emaitza orokorrak	23
4.1.3.	Ikasketa-emaitza espezifikoak	30
4.2.	IBILBIDE FORMATIBOA PRACTICUMEAN	33
4.3.	EBALUAZIO SISTEMA	35
4.3.1.	Ebaluazio formatiboa	35
4.3.2.	Gogoeta-praktika	36
4.3.3.	Autoebaluazioa eta ebaluazioa	38
4.3.4.	Kalifikazio sistema	39
4.4.	TUTORETZA-PROZESUA	40
5.	PRACTICUMAREN ETA BESTE IRAKASGAIEN LERROKATZEA	45
6.	PRACTICUMAREN KUDEAKETA	46
7.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	48
8.	ERANSKINAK	51
1.	Eranskina: Gogoeta-Autoebaluazio orria (lehen kurtsoko ikasleentzat)	51
2.	Eranskina: Practicumaren ebaluazio orria (lehen kurtsoko irakasle tutorearentzat eta instruktorearentzat)	53
3.	Eranskina: Erizaintzako prozedura orokorren orria (ikasleentzat, irakasle tutorearentzat eta instruktorearentzat)	55
4.	Eranskina: Practicumaren Tutoretza-Prozesua garatuta	57
5.	Eranskina: Practicuma kudeatzeko zereginen proposamen bat	65

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia. Erizaintzaren alorreko titulu akademikoen bilakaera	4
2. Irudia. Erizaintzako ikasketen eta zainketen eredu aldaketa	5
3. Irudia. Erizaintzako Graduak ahalbidetzen dituen ibilbideak	6
4. Irudia. Erizaintzako Gradua diseinatzeko emandako pausoak	15
5. Irudia. Erizaintzako Graduaren diseinuaren irudikapena	17
6. Irudia. Practicumaren eta beste irakasgaien banaketa eta kokapena titulazioan	34
7. Irudia. Ebaluazio formatiboaren elementuak	36
8. Irudia. Tutoretza-prozesuaren eskema	43
9. Irudia. Practicumaren kudeaketan parte hartzen duten agenteak	46


TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula. Erizaintzako Graduaren Gaitasun Orokorrak (EGO).....	8
2. Taula. Erizaintzaren Oinarrizko trebakuntzaren Gaitasunak (EOG).....	9
3. Taula. Erizaintzaren Zientziak moduluaren Gaitasunak (EZG)	10
4. Taula. Erizaintzako Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren Gaitasunak	12
5. Taula. UPV/ EHUko Erizaintzako Gradua titulazioaren egitura.....	16
6. Taula. "Erabiltzaileekin, senideekin eta taldeekin harremana" atalaren ikasketa- emaitzak (kurtsoka).	24
7. Taula. "Taldean lana egitea" atalaren ikasketa-emaitzak (kurtsoka).....	25
8. Taula. "Lanbidea garatzea" atalaren ikasketa-emaitzak (kurtsoka).	26
9. Taula. Erizaintzako Prozedura Orokorrak	28
10. Taula. Erizaintzako Prozesuaren ikasketa-emaitzak (kurtsoka).....	30
11. Taula. Gogoeta-praktikaren galderak	37
12. Taula. Practicumaren kalifikazio uneak eta puntuazioaren banaketa	40
13. Taula. Practicum lekuaren aurkezpen orria	42
14. Taula. Practicuma egiteko gaindituta izan beharreko irakasgaiak	45

1. SARRERA

Osasun-zainketak betidanik egin badira ere, erizaintza lanbide gaztea dela esan daiteke; izan ere, erizaintzako ezagutza ahoz eta behaketa bidez transmititzen zen belaunaldi batetik bestera eta praktikarekin ikasten zen XIX. mende arte.


Gure inguruan erizaintzako prestakuntza akademikoari XX. mendetik aurrera eman zaio bultzada (ikus 1. Irudia) eta bereziki bi garai azpimarratu behar dira: erizaintzako titulazioa unibertsitatean sortu zen urtea (1977) eta goi mailako titulazio gisa, Gradua abian jarri zena (2010).



1. Irudia. Erizaintzaren alorreko titulu akademikoen bilakaera


Garai desberdinetan sortutako gizartearen osasun beharrek zainketen garapena bultzatu dute. Era berean, erizaintzako ikasketen eboluzioa eta erizaintza-zainketena lotuta daudela esan daiteke eta bi eremu horietan (ikasketena eta zainketena) eman den eredu aldaketan parekotasun handiak ikus daitezke (ikus 2. Irudia), ikaslea eta pazientea edo erabiltzailea rol aktiboa hartzen duten protagonistak izatera igaro baitira (1).

Erizaintza unibertsitatean sartzeak lanbidearen formazioa hobetzea ahalbidetu zuen: irakaskuntzaren orientazioa aldatu zen, formazioa ospitale eremutik haratago zabaldu zen eta edukiak garatu ziren. Erizainen formazioan txertatu ziren osasuna sustatzea, gaixotasuna prebenitzea eta pertsona/komunitatea osotasunean zaintzea.



2. Irudia. Erizaintzako ikasketen eta zainketen eredu aldaketa

Europar eremuan unibertsitate ikasketak egokitze prozesuak Erizaintzako Gradua sortzea ekarri zuen eta horrek formazioa 4 urtetara luzatzeaz gain, erizaintzari ikerketa eremuaren ateak zabaldu zizkion (ikus 3. Irudia).



3. Irudia. Erizaintzako Graduak ahalbidetzen dituen ibilbideak

2. ERIZAINZAKO GRADUA

Erizaintzako Gradua hainbat Agindukin eta Dekretukin erregulatu da, batzuk Gradu guztiei eragiten dietenak eta beste batzuk, erizaintzako titulazio zehatzari zuzenduak.

Unibertsitateko ikasketen jarraibideak ezartzen zituen Errege Dekretuan, lehenengo eranskinean agertzen dira Gradu guztien oinarritzko gaitasunak (2):

- Ikasleek bigarren mailako hezkuntza orokorretik abiatzen den ikasketa arlo baten ezaguerak dituztela eta ulertzen dituztela frogatu behar dute. Ikasketa arlo hori, nahiz eta testuliburu aurreratuetan oinarritzen den, horren ikasketa eremuaren abangoardiatik sortutako ezaguerak behar dituzten alderdi batzuk ere barneratzen dituen mailan lortuko da.

- Ikasleek dituzten ezaguerak beren lanera edo bokaziora profesionaltasunez aplikatzen jakin behar dute, eta argudioak erabiliz, eta bakoitzaren ikasketa arloko arazoaren ebazpenen bidez egiaztatzen diren gaitasunak eduki behar dituzte.
- Ikasleak datu esanguratsuak (bere ikasketa arloaren barruan) biltzeko eta interpretatzeko gai izan behar dira, izaera sozial, zientifiko edo etikoko gai garrantzitsuei buruzko hausnarketak dituzten ondorioak eman ahal izateko.
- Ikasleak publiko aditu edo ez adituari informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak transmititzeko gai izan behar dira.
- Ikasleek ondorengo ikasketei autonomia maila handiarekin ekiteko beharrezkoak diren ikasketa trebetasunak garatu behar dituzte.

Erizaintzako tituluaren izena 'Erizaintzan Graduatua' da (3), titulazioak 240 kreditu (ECTS: European Credit Transfer System) ditu (2) eta ikasketa planak ziurtatu behar du ikasleek bereganatuko dituztela lanbidean jarduteko behar diren gaitasunak Gradua amaitu bezain laster lan eremuan sartzeko.

"Erizaintzan Graduatua" titulazioaren baldintzetan (4) agertzen dira titulazioan garatu beharreko gaitasun guztiak: 18 gaitasun orokorrak (1. Taula), oinarrizko trebakuntzaren 15 gaitasun zehatzak (2. Taula), erizaintzako zientzietako 40 gaitasun zehatzak (3. Taula) eta Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren (GRAL) gaitasunak (4. Taula).

1.Taula. Erizaintzako Graduaren Gaitasun Orokorrak (EGO).

EGO1	Gai izatea, erizaintzaren eremuan, atenditzen ari diren pertsonen horien osasun premien arabera arreta sanitario tekniko eta profesional egokia emateko, une bakoitzeko ezaupide zientifiko mailaren arabera eta arau legal eta deontologiko aplikagarrietan ezartzen diren kalitate eta segurtasun mailen arabera.
EGO2	Pertsonen, familiei edo taldeei zuzendutako erizaintza zainketak planifikatzea eta ematea, osasun emaitzetara bideratuta eta eragina ebaluatuz praktika kliniko eta asistentzialen gidaren bitartez.
EGO3	Erizaintzaren oinarri eta printzipio teoriko eta metodologikoak ezagutzea eta aplikatzea.
EGO4	Pertsonaren jokabide interaktiboa ulertzea generoaren, taldearen edo komunitatearen arabera, haren testuinguru sozialaren eta kultura anitzeko testuinguruaren barnean.
EGO5	Pertsonen, familiei edo taldeei zuzendutako zainketa sistemak diseinatzea, horien eragina ebaluatuz eta beharrezko aldaketak ezarri.
EGO6	Erizaintzaren esku hartzea ebidentzia zientifikoan eta eskuragarri dauden iturrietan oinarritzea.
EGO7	Pertsonak aurreiritzirik gabe ulertzea, dituzten ezaugarri fisiko, psikologiko eta sozialak kontutan hartuz, pertsona autonomo eta independente bezala hartuz, eta beren iritziak, sinismenak eta baloreak errespetatuz, intimitate eskubidea bermatuz, konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren bitartez.
EGO8	Atenditutako pertsonen parte-hartze, informazio, autonomia eta baimen informatuko eskubideak sustatzea eta errespetatzea, erabakiak hartzeko orduan, beren osasun-gaixotasun prozesua bizi duten moduen arabera.
EGO9	Bizimodu osasuntsuak eta nor bere burua zaintzea sustatzea, jokabide prebentibo eta terapeutikoak mantentzea ahalbidetuz.
EGO10	Atenditutako pertsonen, familien edo taldeen osasuna eta ongizatea babestea, horien segurtasuna bermatuz.
EGO11	Gaixoeekin, familiekin, talde sozialekin eta kideekin komunikazio eraginkorra ezartzea eta osasunerako hezkuntza sustatzea.
EGO12	Erizaintza espainiarraren kode etikoa eta deontologikoa ezagutzea, osasunaren inplikazio etikoak aldatzen ari den testuinguru mundial batean ulertuz.

Iturria: (4)

...jarraitzen du 1.Taula. Erizaintzako Graduaren Gaitasun Orokorrak (EGO).

EGO13	Finantzaketa sanitario eta sozio-sanitarioaren oinarriak ezagutzea eta erabil daitezkeen baliabideak behar bezala erabiltzea.
EGO14	Ebaluazio mekanismoak ezartzea, alderdi zientifiko-teknikoak eta kalitatezkoak kontutan hartuz.
EGO15	Profesional taldea oinarritzko unitate gisa hartuta lan egitea, profesionalak eta erakunde asistentzialen gainerako pertsonalak diziplina bakar edo anitzeko edo diziplina arteko egitura dutelarik.
EGO16	Informazio sanitarioaren sistemak ezagutzea.
EGO17	Erizaintza zainketak osasunaren arreta osoan oinarrituz egitea. Horrek eskatzen du profesional anitzen lankidetzeta, prozesuen integrazioa eta jarraipen asistentziala.
EGO18	Gaixo aurreratuen eta terminalen egoera arintzeko zaintza aringarrien aplikazioan erosotasun eta sintomei arreta emateko neurriak hartzeko estrategiak ezagutzea, gaixoari eta familiari zuzenduta.

Iturria: (4)

2. Taula. Erizaintzaren Oinarritzko trebakuntzaren Gaitasunak (EOG)

EOG1	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa ezagutzea eta identifikatzea.
EOG2	Zelulen eta ehunen oinarri molekularrak eta fisiologikoak ulertzea.
EOG3	Erizaintza zainketekin zerikusia duten produktu sanitarioen erabilera eta azalpena ezagutzea.
EOG4	Ezagutzea botika multzoak eta horien baimen, erabilpen eta azalpen printzipioak eta eragite mekanismoak.
EOG5	Sendagaiak erabiltzea, horien administrazioagatik eta kontsumoagatik espero diren onurak eta sortutako kalteak edo ondorioak ebaluatuz.
EOG6	Bizi-zikloan zehar pertsona osasuntsuen eta osasun arazoak dituztenen elikadura premiak ezagutu eta baloratzea, elikadura osasuntsua edukitzeko jarraibideak sustatzeko eta sendotzeko.
EOG7	Elikagaiak eta horiek dauden janariak identifikatzea.
EOG8	Elikadura arazo nagusienak identifikatzea eta gomendio dietetiko egokiak aukeratzea.
EOG9	Osasun zainketen teknologiak eta informazio eta komunikazio sistemak aplikatzea.
EOG10	Bizi-ziklokaren garai desberdinetako osasun eta gaixotasun egoeran eragin dezaketen prozesu fisiopatologikoak, horien adierazpenak eta arrisku-faktoreak ezagutzea.

Iturria: (4)

..jarraitzen du 2. Taula. Erizaintzaren Oinarrizko trebakuntzaren Gaitasunak (EOG)

EOG11	Osasun egoera desberdinen aurrean (bereziki gaixotasuna eta sufrimendua) pertsonen erantzun psikosozialak identifikatzea eta laguntza emateko jarduera egokiak aukeratzea.
EOG12	Gaixoarekin eta familiarekin enpatiazko eta errespetuzko harremana ezartzea, pertsonaren, osasun arazoaren eta garapen mailaren arabera.
EOG13	Gaixoekin, familiekin eta talde sozialekin harreman eraginkorra ahalbidetzen duten estrategiak eta gaitasunak erabiltzea, eta, baita ere, beren larritasun eta interesak adieraztea ahalbidetzen dituztenak.
EOG14	Bizi arrisku egoerak bereiztea eta bizi euskarri oinarrizko eta aurreratuko maniobrak egiten jakitea.
EOG15	Genero indarkeriak eragindako arazo psikologikoak eta fisikoak ezagutzea eta identifikatzea, ikaslea gai izateko prebentzioan, detekzio goiztiarrean, asistentzian eta indarkeria mota honetako biktimen errehabilitazioan.

Iturria: (4)

3. Taula. Erizaintzaren Zientziak moduluaren Gaitasunak (EZG)

EZG1	Osasunaren eta zainketaren kontzeptuak identifikatzea, integratzea eta lotzea ikuspuntu historiko batetik, erizaintzako zainketaren eboluzioa ulertzeko.
EZG2	Ikuspuntu ontologiko eta epistemologiko batetik ulertzea erizaintza osatzen duten kontzeptu zentralen eboluzioa, eta, baita ere, eredu teoriko nabarmenenak ulertzea, zainketa prozesuan metodologia zientifikoa aplikatuz eta kasuan kasuko zainketa planak garatuz.
EZG3	Erizaintza prozesua aplikatzea atenditutako pertsonen ongizatea, kalitatea eta segurtasuna emateko eta bermatzeko.
EZG4	Erizaintzako zainketa osoak eusten dituzten printzipioak ezagutzea eta aplikatzea.
EZG5	Pertsonari, familiari eta komunitateari erizaintzako zainketa osoak zuzentzea, ebaluatzea eta ematea.
EZG6	Osasunaren lehen mailako oinarriak eta garatu beharreko jarduerak deskribatzeko gai izatea; pertsonari, familiari eta komunitateari erizaintzako zainketa osoak emateko gai izatea, alegia.
EZG7	Profesionalak Osasunaren Lehen Mailako Arreta talde batean lankidetzan garatu behar dituen eginkizun, jarduera eta jokabideak ulertzea.
EZG8	Pertsonen, familiaren eta taldeen partehartzea sustatzea, beren osasun-gaixotasun prozesuetan.
EZG9	Osasunarekin eta inguruko arazoekin zerikusia duten eragileak identifikatzea, pertsonen osasun eta gaixotasun egoeretan komunitate bateko kide gisa atenditzeko.
EZG10	Barneko eta kanpoko faktoreen eragina identifikatzea eta aztertzea, pertsonen eta taldeen osasun mailan.
EZG11	Bere eremuan beharrezko metodoak eta prozedurak aplikatzea, komunitate bateko osasun arazo garrantzitsuenak identifikatzeko.

Iturria: (4)

..... jarraitzen du 3. Taula. Erizaintzaren Zientziak moduluaren Gaitasunak (EZG)

EZG12	Populazio ikerketei buruzko datu estatistikoak aztertzea, osasun arazoekausa posibleak identifikatuz.
EZG13	Komunitateko kideen osasuna eta ongizatea erraztea eta laguntza eta hezkuntza ematea, horien bizitzak osasun arazoek, arriskuen, sufrimenduen, gaixotasunen, gaitasun ezaren edo heriotzaren eragina jasan badu.
EZG14	Helduaren osasun aldaketak ezagutzea, fase desberdinetan agertzen diren adierazpenak bereiziz.
EZG15	Osasun arazoengatik sortutako zainketa beharrak identifikatzea.
EZG16	Gaixo helduaren balorazioan jasotako datuak aztertzea, arazoei lehentasuna ematea, zainketa-plana ezartzea eta betetzea, eta horren ebaluaketa egitea.
EZG17	Erizaintza zainketako teknikak eta prozedurak egitea, gaixo eta familia kideekin harreman terapeutiko bat ezarriz.
EZG18	Osasunaren desbideratzeetatik sortutako arazoak tratatzeko edo prebenitzeko esku-hartzeak aukeratzea.
EZG19	Taldekideekin lankidetzarako joera izatea.
EZG20	Emakumeen ezaugarriak identifikatzea, ugalketa zikloaren momentu desberdinetan, klimaterioan eta agertu daitezkeen aldaketetan; eta etapa bakoitzean beharrezko zainketak ematea.
EZG21	Zainketa orokorrak aplikatzea, amatasun prozesuan zehar emakumeak eta jaioberriak behar berrietara errazago moldatzeko eta zailtasunak prebenitzeko.
EZG22	Jaioberriaren zainketarako alderdi bereziak ezagutzea.
EZG23	Haurtzaroaren eta nerabetasunaren garai desberdinen ezaugarriak, eta hazkuntzaren eta garapenaren eredu normala baldintzatzen duten faktoreak identifikatzea.
EZG24	Haurtzaroaren osasun arazo ohikoenak ezagutzea eta horien adierazpenak identifikatzea.
EZG25	Haurraren balorazio datuak aztertzea, erizaintzakoak diren arazoak eta agertu daitezkeen konplikazioak identifikatuz.
EZG26	Erizaintza zainketaren teknikak aplikatzea eta hurrekin eta horien zainzaileekin harreman terapeutikoa ezartzea.

Iturria: (4)

.... jarraitzen du **3. Taula. Erizaintzaren Zientziak moduluaren Gaitasunak (EZG)**

EZG27	Haur osasuntsuari eta gaixoari zuzendutako esku-hartzeak aukeratzea, eta baita diagnostiko eta tratamendu metodoetatik sortutakoak ere.
EZG28	Gurasoei edo zaintzaile nagusiei Osasun-Hezkuntza emateko gai izatea.
EZG29	Zahartze prozesuarekin lotutako aldaketak eta horien eragina osasunean ulertzea.
EZG30	Zahartze prozesuarekin lotutako egitura, funtzio, psikologia eta bizimoduen aldaketak identifikatzea.
EZG31	Pertsona helduen osasun arazo ohikoenak ezagutzea.
EZG32	Osasun arazoak tratatzeko edo prebenitzeko zainketak aukeratzea eta horiek eguneroko bizitzara moldatzea, hurbiltasun baliabideen bidez adineko pertsonari lagunduz.
EZG33	Espainiako Osasun Sistema ezagutzea.
EZG34	Erizaintzako zerbitzuen zuzendaritza eginkizunaren eta zainketen kudeaketaren ezaugarriak identifikatzea.
EZG35	Taldeak zuzentzeko teknikak ezagutzea eta aplikatzeko gai izatea.
EZG36	Erizaintza espainiarraren legeria aplikagarria eta kode etikoa eta deontologikoa ezagutzea. Kode hori Europako erizaintzako kode etikoan eta deontologikoan oinarritua dago.
EZG37	Zainketak ematea eta gaixo eta familiaren duintasun, pribatutasun, intimitate, konfidentzialtasun eta erabakitze gaitasun eskubideak bermatzea.
EZG38	Zainketa bakoiztea adina, generoa, desberdintasun kulturalak, etnia taldea, sinesmenak eta baloreak kontutan hartuz.
EZG39	Osasun mentalaren arazo nagusienak ezagutzea, bizi zikloko fase desberdinetan eta erizaintza zainketa osoak eta eraginkorrak ematea.
EZG40	Zainketa aringarriak eta minaren kontrolerako zainketak ezagutzea, gaixo aurreratu eta terminalen egoera arintzeko zainketak emanez.

Iturria: (4)

4. Taula. Erizaintzako Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren Gaitasunak

Practicum	Praktika kliniko aurre-profesionalak, txandaka eta bakarka eta gaitasunen amaierako ebaluazioarekin. Praktika horiek egingo dira balore profesionalak, asistentzia komunikazioko gaitasunak, arrazonamendu klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa barneratzea ahalbidetzen duten Osasun Zentroetan, Ospitaleetan eta beste asistentzia zentroetan. Praktiketean helburu orokorretan eta Titulua osatzen duten gaitetan deskribatzen diren gaitasunei loturiko printzipio eta baloreetan oinarritzen diren erizaintza ezaguerak, trebetasunak eta jokabideak barneratuko dira.
GRAL	Gradu Amaierako Lana: zeharkako gaia da, eta gai desberdinekin loturik egingo da.

Iturria: (4)

3. TITULAZIOAREN EGITURAREN DISEINU PEDAGOGIKOA

Erizaintzako Gradua titulazioa diseinatzeko UPV/EHUn Erizaintza ematen zuten zentroek elkarlanean aritzea erabaki zuten Berrikuntza Proiektu baten babesarekin. Horrela, hiru Zentroetako Titulazio Batzordeetako kideek hainbat saio egin zituzten Pedagogian Doktorea den pertsona baten gidaritzapean Erizaintzako tituluaren gaitasunak argitaratu (4) zirenetik aurrera, urtebetean zehar.

Erizaintzako Gradua diseinatzeko Titulazioaren gaitasunak izan ziren abiapuntua eta helmuga. Irakasgaiak ez ziren finkatu azken unera iritsi arte; izan ere, irakasgaietan garatu beharreko gaitasunek baitzuten garrantzia guztia eta ez irakasgaien izenek.


Gaitasunei buruzko definizio ugari aurkitu daitezke (5-13). Adituek dioten bezala, gaitasunak jardunean lortzen dira eta testuinguruak berebiziko garrantzia du. Gaitasuna garatzeak esan nahi du dagokion testuinguruan jarduteko gai izatea (14). Jardute horrek bere konplexutasuna du eta baliabide ugari erabiltzea eskatzen du: ezagutzak, trebetasun teknikoak, irizpideak, balioak eta jarrerak, besteak beste (15-18). Aipatutakoa ez da mugatzen edozein trebetasun edo gaitasun espezifiko egitera eta are gutxiago ezagutza espezifikoak jakitera, baizik eta "jarduten jakitea" askoz konplexuagoa da, testuinguru jakinetan erantzukizunez edo rol profesionala betetzen jakin behar baita (19).

Gaitasunak ibilbide akademikoan zehar garatzen ditu ikasleak eta ondorioz, ibilbide hori diseinatzea; hau da, ikasketa plana gaitasunetan diseinatzea erronka bat da (20).

Titulazioetako Batzordekideek mahai gainean beti izan zuten dokumentuetako bat Erizaintzako Gradua Titulazioaren fitxa ofiziala izan zen (4), bertan agertzen diren gaitasun orokorrak eta espezifikoak garatu behar baitira formazioan.

Erizaintzako Gradua diseinatzeko hainbat pauso eman ziren (ikus 4. Irudia):

- Erizaintzan Graduatuaren 18 gaitasun orokorrak patxadaz irakurri eta interpretatu ziren, zer adierazi nahi zuten eztabaidatuz eta adostuz.
- Erizaintzako gaitasun orokorrak Unibertsitateetako Gradu guztien oinarrizko 5 gaitasunekin gurutzatu ziren eta Zeharkako gaitasunak izan zitezkeenak bereizi ziren.
- Gaitasun espezifiko guztiak, hau da, 3 modulutan (oinarrizko trebakuntzarako gaitasunen modulua; erizaintzako zientzienak; eta, Practicumarenak eta GRALarenak) irakurri eta era honetan aztertu ziren: zenbat denboran barneratu zitezkeen (epe motzean edo luzean); zein garaietan landu behar ziren (titulazioaren lehenengo zatian, bigarrengoan edo amaieran); eta, zein arloekin (Practicuma barne) zuten harremana.
- Gaitasun espezifikoak zein kurtsotan garatu behar ziren aztertu ostean, kurtso bakoitzeko gaitasun orokorrak adostu ziren zeharkako gaitasunak txertatuz eta titulazioko gaitasun orokorrekin gurutzatu ziren.
- Gaitasunak zein arloekin zuten erlazioa aztertu ondoren eta zein kurtsotan landu behar ziren erabaki ostean, kurtso bakoitzeko arloak erabaki ziren eta arlo horiei zegozkien irakasgaien izenak adostu ziren.
- Amaitzeko, Erizaintzako Gradua Titulazioaren egitura erabaki zen: irakasgaiak eta bakoitzaren kreditu kopurua (practicumak barne), eta kokapena Graduan zehar (ikus 5. taula).




4. Irudia. Erizaintzako Gradua diseinatzeko emandako pausoak

5. Taula. UPV/ EHUko Erizaintzako Gradua titulazioaren egitura

	<i>IRAKASGAIAK (lehen sei hilekoan)</i>	<i>ECTS</i>	<i>IRAKASGAIAK (2. sei hilekoan)</i>	<i>ECTS</i>
1. KURTSOA	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa I	6	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa III	6
	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa II	6	Patologia: Oinarrizko zainketak.	6
	Osasun Publikoa	6	Antropologia, etika eta legeria	6
	Informazio sistemak eta datuen analisia	6	Erizaintzaren oinarri teorikoak	6
	Osasun zainketei aplikatutako zientzia psikosozialak	6	Zainketa Praktiketarako Hasiera	6
	Guztira	30	Guztira	30
2. KURTSOA	Farmakologia	6	Erizaintza komunitarioa	6
	Harremanak eta komunikazioa zainketetarako	6	Erizaintza klinikoa II	6
	Erizaintza klinikoa I	6	Bizi zikloaren erizaintza II	6
	Bizi zikloaren erizaintza	6	PRACTICUM I	12
	Erizaintzaren oinarri metodologikoak	6		
	Guztira	30	Guztira	30
3. KURTSOA	Erizaintza klinikoa III	6		
	Erizaintza klinikoa IV	10	HAUTAZKOAK	18
	Erizaintzako zerbitzuen kudeaketa	6		
	PRACTICUM II	8	PRACTICUM III	12
	Guztira	30	Guztira	30
4. KURTSOA	PRACTICUM IV – V (urte osoan 54 ECTS)			
	Gradu amaierako lana (6 ECTS)			

4. PRACTICUMAREN DISEINUA ELKARLANEAN

UPV/EHU adostutako Erizaintzako Graduaren practicum titulazioaren enborra bezala hartu zen (5. Irudia) eta practicum zikloak kurso guztietan txertatu ziren. Practicumaren kreditu kopurua honela finkatzea adostu zuten UPV/EHU Erizaintzako 3 Zentroek: lehen kursoan 6 kreditu ECTS, bigarren kursoan 12, hirugarren kursoan 20 eta laugarren kursoan 54. Guztira 92 kreditu ECTS; hau da, titulazio osoaren ia %40a.



5. Irudia. Erizaintzako Graduaren diseinuaren irudikapena

Adituek diotenez, practicum gaitasunak garatzeko testuinguru egokia da (10, 21). Beraz, erizaintzako ikasleei erizaina izateko gaitasunak garatzeko, testuinguru egokiak eskaini beharko zaizkie practicumean (Ospitaleko zerbitzuetan eta unitateetan, Lehen Arreta emateko osasun-zentroan, Zentro Sozio-sanitarioetan, besteak beste).

Erizaintzako Graduaren practicumak 92 ECTS izateak erizaintzako trebakuntza zabala izatea ahalbidetu dezake, baldin eta, egitura, metodologia eta ebaluazio tresna egokiak erabiltzen badira.

Erizaintzako fitxa ofizialak (4) dio tutoretzapeko praktikei buruz, praktika kliniko aurre-profesionalak direla, txandaka egin behar direla eta gaitasunen ebaluazioa izan behar dutela. Esaten du ere, balore profesionalak, asistentziarako komunikazio gaitasunak, arrazonamendu klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa barneratzea ahalbideratzen duten zentroetan egin behar direla praktika horiek; hau da, Osasun Zentroetan, Ospitaleetan eta beste asistentzia guneeetan. Fitxa horretan ere adierazten da praktiketan barneratu behar direla helburu orokorretan eta Titulua osatzen duten gaietan deskribatzen diren gaitasunei loturiko printzipio eta baloreetan oinarritzen diren erizaintza ezaguerak, trebetasunak eta jokabideak.

Medinak zioen azken 50 urteetan teknikaren ezagutza nagusitu dela erizaintzako irakaskuntzan (21); hau da, prozeduren eta trebezien irakaspenean oinarritu dela eta hori ez da nahikoa erizaintzaren funtzioak betetzeko. Izan ere, ikasleak gai izan behar du egoera desberdinei erantzun egokia emateko testuinguru jakin batean edo bestean (22).

Kontuan izan behar da erizainaren lana inguru konplexuetan ematen dela, gehienetan osasun arazoa duten edo izateko arriskua duten pertsonekin harremanetan eta askotan sufrimenduariekin kontaktuan. Egoera bakoitzari erantzun egokia emateko ikasleak ezagutzak, trebezia eta jarrera egokiak barneratuak eta integratuak izan beharko ditu. Practicumean biziko ditu ikasleak egoera horiek eta hor izango du aukera erakusteko erantzun egokia ematen dakiela.

Erizaintzako fitxa ofizialean agertzen den lehenengo gaitasun orokorrak esaten du ikasleak gai izan behar duela erizaintzaren eremuan, zaintzen ari diren pertsonen, horien osasun premien arabera arreta sanitario tekniko eta profesional egokia emateko, une bakoitzeko ezaupide zientifiko mailaren arabera eta arau legal eta

deontologiko aplikagarrietan ezartzen diren kalitate eta segurtasun mailak kontuan hartuz (4).

Gaitasunak esaten du zertarako gai izan behar duen ikasleak baina ez du zehazten nola egiaztatu gaitasuna garatu duela. Gaitasunen definizioek, oro har, nahiko abstraktuak izaten direnez, beste pauso bat gehiago ematea oso garrantzitsua izango da: ikasketa-emitzak zehaztea, alegia. Izan ere, gaitasunaren garapen maila zehazten dute ikasketa-emitzek (23) eta irakasleei zein ikasleei argitzen diete ikaskuntza prozesuaren amaieran lortu behar dena.

Ondorioz, gaitasunen garapena ziurtatzeko, lehendabizi jakin beharko da ikasleak zein ikasketa-emitza lortu behar dituen, non, noiz eta nola garatu behar dituen eta erabaki beharko dira ere ebaluazio tresnak eta tutoretza-sistema. Hori guztia diseinatzeko, metodologia partehartzailea erabili zen ikasleekin, instruktoorekin eta irakasle tutoreekin elkarlanean. Pauso hauek eman ziren:

- Kurtso bakoitzeko ikasketa-emitza orokorrak erabakitzea eta ezinbestekotzat hartzen direnak finkatzea.
- Ikasketa-emitzak lortzeko ibilbidea zehaztea.
- Ibilbideko arlo klinikoetan garatu beharreko ikasketa-emitza espezifikoak erabakitzea.
- Ebaluazioa-sistema eta -tresnak erabakitzea.
- Tutoretza-prozesua zehaztea.
- Practicumaren ikasketa-emitzak beste irakasgaietan txertatuta daudela egiaztatzea.
- Practicuma egin ahal izateko gaindituta izan behar diren beste irakasgaiak erabakitzea, hau da, giltza diren irakasgaiak.

4.1. IKASKETA-EMAITZAK

4.1.1. Ikasketa-emaitez zehazteko metodologia

Ikasketa-emaitez ikas-irakaskuntza prozesua argitzen dute eta lagungarriak dira gaitasunen planifikaziorako, garapenerako eta ebaluaziorako (23).

Erizaintzako practicumaren ikasketa-emaitez erabakitzeko metodologia partehartzailea erabiltzea erabaki zen ere eta hainbat lan saio egin ziren practicumaren garapenean parte hartzen duten agenteekin: ikasleekin, erizain instruktoreekin (praktika lekuan ikaslearen formazioaren ardura duten pertsonak dira) eta unibertsitateko irakasle tutoreekin.

Ikasketa-emaitez orokorrak erabakitzeko antolatutako bi lan saioetan parte hartu zuten bere borondatez izena eman zuten 50 pertsonen: 29 (%58) erizain instruktoreak ziren (15 Lehen Arreta emateko osasun-zentroetakoak eta 14 ospitaletako unitate eta zerbitzu desberdinetakoak); 11 (%22) erizaintzako ikasleak (3. kurtsokoak); eta, 10 (%20) praktiketako irakasle tutoreak.

Saio bakoitzaren hasieran, talde osoari hitzaldi bat eman zitzaion gaiari buruz informazioa emateko eta hitzaldiaren bukaeran, talde txikitik erabiliko zen metodologia azaldu zitzaion. Hitzaldiaren ostean, sei taldetan banatu ziren parte hartzaileak era honetan: 4-5 erizain instruktore, 1-2 ikasle, 1-2 irakasle. Bi lan-saioetan taldeen egitura berdina mantendu zen.

Lehenengo lan-saioaren helburua zen Erizaintzako Gradua titulua jaso aurretik ikasleak lortu beharreko gaitasunak eta ikasketa-emaitez orokorrak zehaztea. Horretarako, saioaren aurretik oinarrizko dokumentu bat prestatu zen (partaide guztiek eskura izan zutena) informazio-iturri hauen azterketa egin ostean egin zena: Erizaintzako fitxa ofiziala(4), Erizaintzako Liburu Zuria, UPV/EHUko Erizaintzako hiru Zentroetako Titulazio Batzordeetako kideek egindako ekarpenak, praktika klinikoaren ebaluazioa landu zuten hiru hobekuntza taldeek ("Kaleriza", "Betiprak" eta "Emairak")

egindako proposamenak, Donostiako Erizaintzako Eskolan erizain instruktoreekin egindako Jardunaldietan jasotako ekarpenak eta praktika klinikoaren ebaluazioari buruzko bibliografia, besteak beste.

Lehen saioaren aurretik prestatutako dokumentu horretan lau atal bereiz zitezkeen, erlazioa zuzena zutenak UPV/EHUko Erizaintzako Zentroek definitu zituzten 4. kurtsoko gaitasunekin:

- Pazienteekin, senideekin eta taldeekin harremana.
- Taldean lana egitea.
- Erizaintzako prozesua garatzea, 6 ataletan banatu zena: Balorazioa, Erizaintza-Diagnostikoa, Planifikazioa, Ekitea, Ebaluazioa eta Erregistroak.
- Lanbidea garatzea.

Oinarrizko dokumentu horren atal bakoitzean, hainbat gaitasunen erreferentzia egin ostean, ikasketa-emaitzen proposamena agertzen zen modu irekian, partaideei errazteko proposamenak egitea (ikasketa-emaitzak aldatu, ezabatu, berriak proposatu...).

Oinarrizko dokumentuaren lau atalak lehenengo saioan aztertu ziren, atal bakoitza aurretik finkatutako denbora tarte zehatz batean.

Lehenengo saioan, esandako dokumentazioarekin batera, bi eranskin banatu ziren: bata erizaintzako prozedurei buruzkoa eta bestea Osasun-Hezkuntzari buruzkoa. Eranskin horiek etxean betetzeko ziren, eta postaz bidali behar zituzten.

Erizaintzako prozeduren eranskinean hainbat prozedura agertzen ziren eta eskatu zitzaie esateko, ikasketetan zehar ebaluatu beharreko prozedurak ote ziren. Erantzuteko hiru aukera zituzten: "ezinbestean graduatu aurretik frogatu beharrekoa"; "lagungarria, baina ez da ezinbestekoa"; eta, "ez da beharrezkoa".

Osasun-Hezkuntzaren eranskina betetzeko, eskatzen zitzaie esateko, ohiko osasun-arazoak kontuan izanda, zein motako osasun-hezkuntza emateko gaitasuna lortu

behar zuten ikasleek graduatu aurretik. Proposamenari erantzuteko prozeduren eranskinean erabilitako hiru aukerak zituzten.

Borondatez izena eman zuten sei irakasle tutoreek taldeak gidatu zituzten, adituak gainbegiratzen zituen bitartean. Irakasle horiekin bilera bat egin zen lan-saio bakoitzaren aurretik metodologia azaltzeko, eta lan-saio bakoitzaren ondoren taldearen lanari buruz hitz egiteko eta emaitzak eskuratzeko.

Lehenengo saioan jasotako proposamenekin oinarritzko dokumentuan aldaketak egin ziren: ikasketa-emaitza batzuk bitan banatu ziren, bi emaitza bereiz zitezkeelako; beste ikasketa-emaitza batzuk era argiagoan idatzi ziren; eta, ikasketa-emaitza berriak sartu ziren. Horrela, titulua jaso aurretik ikasleak lortu beharreko ikasketa-emaitzen dokumentua berritu zen.

Bigarren lan-saioaren helburua zen kurtso bakoitzean garatu beharreko ikasketa-emaitza orokorrak erabakitzea eta ezinbestekotzat jotzen zirenak zehaztea. Saioaren hasieran aurrekoaren emaitzak aurkeztu ziren (jasotako eranskinenak ere) eta talde txikitik erabiliko zen metodologia azaldu zen ere. Gero, talde txikitik elkartuta, lehendabizi titulua jaso aurretik ikasleak lortu beharreko ikasketa-emaitza orokorrak baliozkotu ziren eta segidan, kurtso bakoitzean lortu beharreko ikasketa-emaitza orokorrak landu ziren. Partaide bakoitzari eskatu zitzaion dokumentuan jartzeko ikasketa-emaitza bakoitza zein kurtsoan lortu behar zen. Horretarako, Erizaintzako Graduaren kronograma kontuan hartu behar zen, gaitasun desberdinak zein kurtsoan ematen ziren, alegia. Izan ere, practicumean eskatuko diren ikasketa-emaitzak, practicum egin aurretik Unibertsitatean era teoriko-praktikoan lantzea oso garrantzitsua baita.

Partehartzaileei galdetu zitzaion ere zein ikasketa-emaitzak jotzen dituzten ezinbestekotzat; hau da, nahita nahiez lortu beharrekoak practicum gainditzeko. Taldean eztabaidatu ziren eta talde bakoitzak "ezinbesteko ikasketa-emaitzen" proposamena egin zuen.

Aurretik aipatu den bezala, dokumentuak 4 atal zituen, atal bat landu ostean hurrengora pasatzen ziren talde bakoitzeko partaideak. Atal bakoitzak denbora jakin bat esleitua zuen, gehiegi ez luzatzearren eta atal guztiak lantzearren. Talde bakoitzean irakasle gidaria arduratu zen denbora tarteak betetzeaz.

4.1.2. Ikasketa-emitza orokorrak

Erizain instruktoreekin, ikasleekin eta irakasle tutoreekin egindako lan saioetan lortutako emaitzen analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa egin zen. Analisi kuantitatiboa egiteko, maiztasun banaketa erabili zen (24). Gradua martxan jarri ostean, Praktika Batzordean aztertu ziren instruktoreek, ikasleek eta irakasle tutoreek egindako hobekuntza proposamenak eta adostutako aldaketak egin ziren. Ikasketa-emitza orokor gisa hartu ziren "Pazienteekin, senideekin eta taldeekin harremana" (6. Taulan), "Taldean lana egitea" (7. Taulan) eta "Lanbidea garatzea" (8. Taulan). Ezinbestean egiaztatu beharreko ikasketa-emitzak "E" batez markatuta agertzen dira tauletan.

"Erizaintzako Prozesua" ataleko ikasketa-emitza batzuk orokor gisa hartu ziren. Horien artean, "Ekitea" atalaren barruan, "Erizaintza prozeduretan trebetasuna frogatzen du eta protokoloak jarraitzen ditu". Izan ere, ikusi zen erizaintzako prozedura asko osasun arlo desberdinetan (ospitalean, osasun-zentroan..) egin daitezkeela eta horiek kontuan hartuta, lau kurtsotan zehar egiaztatu beharreko prozedurak (9. Taulan) adostu ziren (practicumaren aurretik beste irakasgai teoriko-praktikoetan landu beharrekoak). Arlo jakinetan egin beharreko prozedura zehatzak ez dira "Erizaintzako Prozedura Orokorrak" orrian sartu baizik eta dagokion arloko 'Ekitea' atalean ikasketa-emitza gisa zehaztuko dira.

6. Taula. "Erabiltzaileekin, senideekin eta taldeekin harremana" atalaren ikasketa-emaitzak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaitzak</i>	<i>Kurtsoa →</i>	1.	2.	3.	4.
Erabiltzaileen iritziak, sinesmenak eta baloreak errespetatzen dituela agertzen du; sexu, arraza, kultura, edo erlijio bereizketarik egin gabe eta balore-iritziak saihestuz		E	E	E	E
Atea jotzen du gelara sartu aurretik, bere burua aurkeztu eta pertsonei hitz egiten die bere izena erabiliz, errespetuz eta adeitasunez, hitzezko mintzaira eta hitz gabeko mintzaira egokiak erabiliz (begirada, gorputz-jarrera, aurpegiaren espresioa, irribarrea...)		E	E	E	E
<i>Erabiltzaileari informazioa ematen dio:</i>					
Erizaintzako prozedurez informatzen du, prozedura aplikatu aurretik, eta onartu dituela ziurtatzen du		X	E	E	E
Prozedurek eta tratamenduek eragin ditzaketen ondorio kaltegarrien berri ematen du			X	X	E
Erabiltzaileari edota senideei informazioa eman aurretik gaiari buruz dakitenaz galdetzen die eta informazioa helarazitakoan informazioa ulertua izan dela egiaztatzen du eta sor litezkeen zalantzak argitzen edo bideratzen ditu				E	E
Konfiantza eta hurbiltasuna transmititzen ditu, aktiboki entzuten du eta giro egokia sortzen du sentimenduak adierazteko			X	X	X
<i>Prestutasuna agertzen du:</i>					
Prest agertzen da, deitzen diotenean (txirrinak...) behar den denboran joaten da		X	X	X	X
Prest agertzen da, erabiltzaileari eta senideei erizaintzako zerbitzuak (behar izanez gero) nola eskura ditzaketen azalduz			X	X	X
Enpatia agertzen du eta besteek sentitzen dutena ulertzen du distantzia profesionala mantenduz (interesa azaltzen du eta erabiltzailearen eta haren inguruaren sentimenduak, emozioak eta kezkak ulertzen dituela azaltzen du)				X	X
Erizaintza prozeduretan, zuhurtasunez eta errespetuz jokatzeko du eta intimitatea zaintzen du (gortina jartzen du prozedurekin hasi aurretik, higiene pertsonalean intimitatea ziurtatzen du...)		E	E	E	E
Konfidentziasuna eta sekretu profesionala bermatzen ditu, erabiltzaileen informazio pertsonalaren eta klinikoaren pribatasuna mantenduz		E	E	E	E
<i>Erabiltzailearen ongizatea erdiesten du:</i>					
Erabiltzailearen ongizateaz kezkutzen da (zer moduz dagoen galdetzen dio...) eta kontuan hartzen ditu haren adierazpen guztiak		X	X	X	X
Duintasunez bizitzeko eta hiltzeko eskubideak zaintzen ditu eta alferrikako sufrimendua saihesteko hartzen diren neurrietan parte hartzen du				X	X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa.

X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

..jarraitzen du 6. Taula. "Erabiltzaileekin, senideekin eta taldeekin harremana" atalaren ikasketa-emaizak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaizak</i>	<i>Kurtsoa →</i>	1.	2.	3.	4.
<i>Autonomia eta autozainketa sustatzen du:</i>					
Erabiltzailearen aurrerapenak indartzen ditu, baita txikiak badira ere			X	X	X
Erabiltzailearen partehartzea eta inplikazioa ahalbidetzen du, autonomia eta autozainketa sustatuz, jarduerak bideratuz erabiltzaileak ahalik eta independentzia maila handiena edukitze aldera				E	E
Erabiltzaileen eta horien senideen inplikazioa ahalbidetzen du erabakiak hartzeko orduan, behar den informazioa emanaz haiek dituzten ezagutzak eta baliabideak baloratu ostean, eta osasuna-gaixotasuna prozesuan beren inplikatzeko erabakia errespetatuz				X	X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa.
X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

7. Taula. "Taldeen lana egitea" atalaren ikasketa-emaizak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaizak</i>	<i>Kurtsoa →</i>	1.	2.	3.	4.
Parte hartzen ari den osasun markoa ezagutzen du eta taldeko kideen eginkizun desberdinak bereizten ditu		X	X	X	X
Betebehar formalak betetzen ditu; puntuala da, itxura garbia eta zaindutakoa du eta uniforme egokia; eta, ustekabekoak jakinarazten ditu (atzerapenak, faltak..)		E	E	E	E
Taldean integratzen da: taldea agurtzen du txanda hastean eta bukatzean, errespetua agertzen du eta partehartzeko jarrera adierazten du		E	E	E	E
Asertibotasuna azaltzen du: sentimenduak, iritziak eta pentsamenduak adierazten ditu besteen eskubideak ukatu eta gutxietsi gabe			X	E	E
Diziplinarteko taldeko kideei zaintzarekin zerikusia duten jardueri buruz entzun, galdetu eta informatzen die (egindako jarduerak, zalantzak, aldaketak, argibideak, akatsak.....)		X	X	E	E
Dagozkion eginkizunen, bere erabakien eta ekintzen ardura bere esku hartzen du		X	X	X	X
Taldeko beste kideekin edo laguntzako pertsonalarekin (laguntzaileak, zaintzaileak..) partekatu edota delegatu ditzakeen jarduerak bereizten ditu				X	X
Taldekiei erabakietan parte hartzeko borondatea helarazten die (zaintzaren inguruko iradokizunak ematen ditu.....)				X	X
Beharrezkoa denean, beste zerbitzuetako profesionalarekin koordinatzen da (espezializazioak, proba diagnostikoak..)					X
Zaintzen jarraikortasuna antolatzen du arreta eremu desberdinen artean (erizaintzako alta..)					X
Taldeko kideen artean diferentzi pertsonalik eta gatazkarik balego, ongi moldatzen da				X	X
Taldeari hobekuntza arloak proposatzen dizkie					X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa.
X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

8. Taula. "Lanbidea garatzea" atalaren ikasketa-emaizak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaizak</i>	<i>Kurtsoa</i> →	1.	2.	3.	4.
Behatzeko gaitasuna frogatzen du:					
Prozedurak egiteko era arretarekin behatzen du		X	E	E	E
Aukera guztiak aprobetxatzen ditu (edozein prozedura egitea) zaintzarekin zerikusia duten alderdi desberdinak aztertzeke			X	E	E
Gaitasun kritikoa frogatzen du:					
Erizaintzako prozedurak egiteko modu desberdinak aztertzen ditu eta gogoeta egiten du gaitasun kritikoarekin		X	X	X	E
Bere esku-hartzeak aztertzen ditu, dituen ezaguerak eta trebetasunak ezagutzen ditu, bere jarrera eta jokabideak antzematen ditu eta hobetzeko dituen arloak bereizten ditu			X	X	E
Taldekieeen esku-hartzeak aztertzen ditu eta irizpidearekin hausnartzen du "egin" edo "egoteko" moduez				X	X
Mugitzen den eremua (instituzionala, legala) aztertzen du eta asistentzia praktikan sortzen diren zailtasunei buruz hausnartzen du				X	X
Iniziatiba erakusten du:					
Egiteko gai dela dakien prozedurak egiteko, bere burua eskaintzen du eta behar duenean laguntza eskatzen du		X	X	E	E
Inork eskatu gabe ekintzak ekiten ditu (erizainari esanez) eta ez du neurrigabeko ausardiarekin jokutzen			X	E	E
Ikasteko interesa erakusten du eta hobekuntza jarrera: galdetu egiten du "ikasteko", proposatzen zaizkion hobekuntzak "jasotzen" ditu, eta martxan jartzen ditu, bere ikasketaren ardura beregan hartuz.		E	E	E	E
Moldatzeko gaitasuna erakusten du:					
Berrikuntza teknologikoetara moldatzen da, baloratuz haien alde onak eta sortzen dituzten zailtasunak				X	X
Testuinguru desberdinetara moldatzen da (erabiltzaileen etxeetara joatean...)				X	X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa.

X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

...jarraitzen du 8. Taula: "Lanbidea garatzea" atalaren ikasketa-emaitezak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaitezak</i>	<i>Kurtsoa</i> →	1.	2.	3.	4.
Antolaketa gaitasuna erakusten du:					
Betebeharrak irizpideez, lehentasunez eta denborara egokituz antolatzen ditu				X	E
Erabilgarri dauden baliabideak modu eraginkorrean kudeatzen ditu				X	X
Asistentzia presio handiko egoeretako jardueri lehentasuna ematen die (hainbat pertsonen larrialdia)					X
Berak bere kabuz egindako zereginak eta laguntza ematen duten pertsonak (laguntzaileak, zaintzaileak...) egindakoak baloratzen ditu				X	X
Ustekabeko egoerak konpontzen edo bideratzen ditu, jarrera sortzailea erakutsiz zailtasunen eta urritasunen aurrean eta laguntza eskatuz beharrezkoa denean				X	X
Auto zainketa neurriak hartzen ditu:					
Neurri unibertsalak aplikatzen ditu		X	X	E	E
Postura higienezaren eta ergonomiaren printzipioak aplikatzen ditu eguneroko praktikarako		X	X	E	E
Zainketak emateko prozesuan izaten dituen jarrerak, emozioak eta portaerak aztertzen ditu			X	E	E
Bere emozioak behar bezala kudeatzen ditu (estresa, sufrimenduarekin harremana...)				X	X
Erabiltzaileek eragin ditzaketen biolentzia egoeretan babesten daki, halakorik sortuko balitz				X	X
Lanbidearen garapenarekiko konpromisoa erakusten du:					
Ezaupideak hedatzeko, zentro-unitatean antolatzen diren saioetan parte hartzen du				X	X
Profesionalen aurrean, ebidentzia zientifikoan oinarritutako gai interesgarri bati buruzko lan txiki bat aurkezten du					X
Larrialdi eta ebakuazio planei buruzko informazioa non lor dezakeen ezagutzen du					X
Erakundearen Helburuak, Plan Estrategikoa eta zentro-unitateko helburu zehatzak azaltzen dituen informazioa non lor dezakeen ezagutzen du					X
Zentro-unitatean ezarrita dauden kalitatea ebaluatzeko sistemari buruzko informazioa non lor dezakeen ezagutzen du					X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa.

X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

9. Taula. Erizaintzako Prozedura Orokorrak.

Bizi-konstanteak neurtzea eta baloratzea	Gorputz-tenperatura	
	Pultsua	
	T/A (Tentsio Arteriala) eskuz	
	T/A (Tentsio Arteriala) era automatikoan	
	Arnasketa	
	Oxigeno Satutazioa (O ₂ Sa)	
Babes-neurriak kartzten jakitea	Konstanteen grafikoa betetzea	
	Esku-garbiketa higienikoa	
	Eskularru higienikoak erabiltzea	
	Eskularru esterilak erabiltzea	
	Azala, zauriak eta drainatzeak zaintzea	Gorputzaren higiene osoa
		Oheak egitea
Postura-aldaketak egitea		
Sendaketak		
Redon drainadura		
Oinarrizko bendatzeak		
Laginak jasotzea	Pleurevac-aren zainketa	
	Josturak egitea (edo teknika azaltzea)	
	Gluzemia kapilarra	
	Zaineko odola	
	Gasometria arteriala	
	Gernu lagina	
Medikamentuak prestatzea eta ematea	Ahokoak	
	Azaleko partxeak	
	Inhalazioak	
	Lainoztapenak	
	Dermis-barnekoak	
	Larruazalpekoak	
	Muskulu-barnekoak	
	Zain-barnekoa <i>bolus</i> eran	
	Kateter periferikoa jartzea	
	Zain barneko etengabeko infusioa administratzea	
	Sendagaiak administratzeko infusio-ponpak erabiltzea	
	Kateter periferikoan buxatzaileak erabiltzea	
Odol-transfusioak		

...jarraitzen du 9. Taula. Erizaintzako Prozedura Orokorrak.

Beste prozedurak	Oxigenoterapia
	Arnas aparatuko jariakinen aspirazioa
	Trakeostomiaren zainketak
	Elektrokardiograma: teknika eta interpretazioa
	Zainetako Presio Zentrala
	Sudur urdailetako zundaketa egitea
	Beste zunda enteralen zainketa (gastrostomia...)
	Kolostomia edo ileostomia
	Maskuriko zundaketa egitea
	Kateter zentralak eta erreserborioak zaintzea
	Infusoreen erabilpena larruazalpeko bidetik
	Bakartze-neurriak
	Belarrietako tapoiak kentzea
	Gorozkiak jasotzea (koprokultura)
	Hainbat lagin jasotzea (kateter-muturra, karkaxa...)
	Enemak jartzea
	Sendagaiak beste bidetatik ematea (mihipetik, sudurretik, begitik..)
	Gernu-biltzaileak
	Hainbat drainadura zaintzea (Penrose, Jackson Pratt...)

4.1.3. Ikasketa-emaiza espezifikoak

“Erizaintzako prozesua garatzea” ataleko ikasketa-emaizak espezifikoak edo zehatzak bezala hartu ziren, ibilbidearen arabera, alda daitezkeenak. Arlokako ikasketa-emaiza espezifiko horiek erabakitzeko eredia sortu zen (ikus 10. Taula) eta erabaki zen ere zein kutsotan egiaztatu behar ziren. Ezinbestean egiaztatu beharreko ikasketa-emaizak “E” batez markatuta agertzen dira taulan.

Ekitea ataleko “Erizaintza prozeduretan trebetasuna frogatzen du eta protokoloak jarraitzen ditu” ikasketa-emaizari dagokionez, osasun arlo zehatzean egiaztatu beharreko prozedurak adieraziko dira. Izan ere, arlo desberdinetan egiaztatu daitezkeenak “Erizaintzako Prozedura Orokorrak” orrian (9. Taulan lehen azaldutakoak) agertzen baitira.

10.Taula. Erizaintzako Prozesuaren ikasketa-emaizak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaizak</i>	<i>Kurtsoa</i> →	1.	2.	3.	4.
Balorazioa:					
Datuak jasotzen ditu elkarrizketa, behaketa eta azterketa fisikoa eginez eta erizaintzako eredu bat erabiliz edo/eta asistentzia zentroan dauden gidak erabiliz			E	E	E
Jasotako informazioa aztertu eta antolatzen du eta gaitasunak eta beharrak identifikatzen ditu			X	X	X
Erabiltzailearen osasun egoera, sor daitezkeen konplikazioak eta horiek aurretik antzematen laguntzen duten adierazpenak bereizten ditu				X	X
Osasun-gaixotasun prozesuarekin lotuta, erabiltzaileak eta bere inguruak dituzten erantzun emozionalak antzematen ditu				E	E
Prozesuari aurre egiteko eta norbere zainketan inplikatzeko, erabiltzailearen eta haren inguruaren egoera eta baliabideak (familia, zaintzaileak, baliabide sozialak..) baloratzen ditu				X	X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa.

X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

... jarraitzen du 10. Taula: Erizaintzako Prozesuaren ikasketa-emaitzak (kurtsoka).

Ikasketa-emaitzak	Kurtsoa →			
	1.	2.	3.	4.
Diagnostikoa (NANDA: North American Nursing Diagnosis Association):				
Erizainen ardura diren arazoak bereizten ditu eta horietan oinarrituta Erizaintza-Diagnostikoak egiten ditu			X	X
Lankidetzara arazoak (arazo interdependentek) zeintzuk diren zehazten ditu			X	X
Erabiltzailearen egoeran sortzen diren aldaketak edo/eta konplikazioak aurrez antzematen ditu			X	X
Planifikazioa (NOC: Nursing Outcomes Classification):				
Lehentasuna ematen die berehalako zaintza behar duten arazoei			E	E
Helburuak planifikatzen ditu, erabiltzailearekin edo/eta familiarekin ahal bada, osasuna mantentzeko edo hobetzeko, edo duintasunez hiltzen laguntzeko. (Helburuak izan behar dira: errealistak, neurgarriak eta denboran kokatuak)			X	X
Banakako zaintza plan bat programatzen du planteaturiko helburuak betetzeko; erizainaren zeregina izango delarik, erabiltzailea edo/eta familia irakastea, gainbegiratzea, laguntzea edo ordezkatzeta			X	X
Jarduera prebentiboak programatzen ditu			X	X
Jarduera zuzentzaile edo/eta aringarriak programatzen ditu			X	X
Sor litezkeen konplikazioak aurreratzeko dituzten zeinu eta sintomen balorazioa programatzen du			X	X
Jarduerak antolatzen ditu bizitza eredu osasuntsuak sustatzeko eta pertsonaren, familiaren eta komunitatearen auto zainketa bultzatzeko			X	X
Ekitea (NIC: Nursing Interventions Classification):				
Erizaintza prozedurak kalitatez eta segurtasunez egiten ditu, infekzioak eta bestelako konplikazioak prebenitzeko neurriak hartuz:				
Esku garbiketa eta asepsia jarraitua ekimen guztietan		E	E	E
Materialaren eta dispositibo terapeutikoen erabilera arriskuak murriztuz	X	X	E	E
Hondakinen kudeaketa			X	E
Erakundearen baliabide materialen zainketa	X	E	E	E
Erizaintza prozeduretan trebetasuna frogatzen du eta protokoloak jarraitzen ditu (arloko prozedurak zehaztu behar dira)	E	E	E	E
Autozainketa eta Osasun- Hezkuntza				
Pertsonen indepentzia izateko eta gaitasunak garatzeko, osasun hezkuntza ematearen garrantzia antzematen du		X	X	X
Auto-zainketa errazten duten pausoak ematen ditu eta eremu desberdinetan osasun-hezkuntza eskaintzen du (zehaztu arloaren arabera)			X	X
Erabiltzaileari edo/eta familiari laguntza emozionala ematen dio:				
Lasaitasuna eta laguntza transmititzen ditu			E	E
Mezu baikorrak transmititzen ditu eta animoak ematen ditu, itxaropen faltsuak saihestuz			X	X
Informazioa "dosifikatu" eta egokitzen du, erabiltzailearen egoera emozionala kontutan hartuz			X	X
Informazioa ematen du, erabiltzaileari eta familiari osasun egoeran aldaketak eta galerak (dolua) ulertzen laguntzeko				X
Beste profesionalen esku hartzeko beharrak antzematen eta jakinarazten ditu				X

E: Ezinbestean garatu beharrekoa. / **X:** Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

...jarraitzen du 10. Taula: Erizaintzako Prozesuaren ikasketa-emaitzak (kurtsoka).

<i>Ikasketa-emaitzak</i>				
Premiazko egoeretan azkar eta eraginkortasunez jokatu behar duen egoera hauetan, egoera sortuko balitz (arloan bakoitzean zehaztuko dira).				
Bihotz eta arnas gelditzea	Traumatismo kraneo-entzefalikoa	Disnea	Bularreko mina	Hemorragiak
Asfixia	Politraumatismoa	Hausturak	Arritmiak	Erredurak
Erreakzio anafilaktikoa	Krisi konbultsiboa	Garuneko istripu baskularra akutua	Kontzientzia galtzea	Ebakuazio behar duen arrisku egoera baten aurrean portaera
Agitazio krisialdia	Autolisis saiakera	Roadro konfusionala akutua	Epixtasia	
Tratu txarrak	Sexu-erasoak	Antsietate krisialdia	Pertsonalari erasoak	Besteak

<i>Ikasketa-emaitzak</i>	<i>Kurtsoka</i> →	1.	2.	3.	4.
Ebaluazioa:					
Emaitzak ebaluatzen ditu planteaturiko helburuekin alderatuz				X	X
Erabilitako metodologia ebaluatzen du eta aurrerapena errazten edo zailtzen duten eragileak bereizten ditu				X	X
Egindako jarduera independenteen eta interdependenteen ondorioz sortutako erantzuna ebaluatzen du (analgesikoak, antipiretikoak, antihipertentsiboak.....)				X	X
Zaintza plana birplanteatzen du, beharrezkoa bada, erabiltzailearekin edo/eta familiarekin adostuta					X
Bere zainketa-prozesuari buruz, erabiltzaileak duen iritzia ebaluatzen du					X

Pertsonaren osasuna **erregistratzen** du: segidan agertzen diren erregistroak argi eta zehatz betetzen ditu eta unitatean/zentroan erabiltzen diren programa informatikoak egoki erabiltzen ditu

Balorazio erregistroak				X	X
Proben kontrolerako orria			X	X	X
Zainketa planaren erregistroa				E	E
Eboluzio planaren erregistroa				X	X
Zainketen jarraipenerako orria (erizaintzako alta)				X	X
Zaineri				X	X
Osabide				X	X
Unitatean/zentroan erabiltzen diren beste programa informatikoak				X	X

E: Ezinbestean garatu beharrezkoa.

X: Garatzea komeni da baina ez da ezinbestekoa.

4.2. IBILBIDE FORMATIBOA PRACTICUMEAN

Ikasketa-emaitez garatzeko, ikaslea testuinguru egokitan kokatu behar da. Gipuzkoako osasun sistema publikoak eta pribatuak eskaintzen zituen unitate eta zentro guztien ezaugarriak aztertu ziren eta talde/arlo desberdinetan sailkatu ostean erabaki zen ikasle guztiek zein arloetan egin behar zituzten praktikak practicumaren 7 zikloetan kontuan izanda practicumak eta beste irakasgaiek titulazioan duten kokapena (ikus 6. Irudian). Aipatutako arloak hauek dira:

- Barne-medikuntzako unitateak.
- Kirurgiako unitateak.
- Zentro gerontologikoak eta soziosanitarioak.
- Larrialdiak-Zainketa Intentsiboetako Unitateak (ZIU)-Erreanimazioa.
- Ama-Haur unitateak.
- Lehen Arreta emateko Osasun Zentroak.
- Hautatzeko zerbitzuak: Kirofanoa, Psikiatria, Onkologia, Onko-hematologia, Etxez-etxeko ospitaleratzea, Hemodinamika, Erradiologia interbentzionista, Dialisia, besteak beste.

Practicumera joan aurretik, ikasleek Fakultatean beste irakasgaiekin hainbat ezagutza eta trebezia ikasten dituzte. Kurtsoaren arabera, practicumean ikaslea arlo batera edo bestera joan daiteke.

Irakasgai teoriko-praktikoetan ikasleak garatzen dituzten gaitasunak eta osasun erakunde publikoetan eta pribatuetan dauden plaza kopurua kontuan hartuta, ikaslea osasun arlo bakoitzera zein practicumetik aurrera joan beharko lukeen erabaki da ikasketa plan osoa aztertu ostean:

- Barne-medikuntzako unitateak: lehen kurtsoetik aurrera.
- Zahar egoitzak eta zentro soziosanitarioak: lehen kurtsoetik aurrera.
- Kirurgiako unitateak: 2. kurtsoetik aurrera.
- Ama-haur arloa: amarentzako ospitalizazio unitateetara 2. kurtsoetik aurrera eta haurren ospitalizazio unitateetara 3. kurtsoetik aurrera.

- Larrialdiak-Zainketa Intentsiboetako Unitateak (ZIU)-Erreanimazioa: 4. kurtsoan.
- Lehen Arreta emateko Osasun Zentroak: 4. kurtsoan.
- Hautatzeko zerbitzuak (Kirofanoa, Psikiatria, Onkologia, Onko-hematologia, Etxez etxeko ospitaleratzea, Hemodinamika, Erradiologia interbentzionista, Dialisia, besteak beste): 3. kurtсотik aurrera.

Kurtsoa	Lehen seihiilekoa (Iraila – Urtarrila)		2. seihiilekoa (Otsaila – Ekaina)		
1.	- Giza gorputzaren egitura eta funtzioa I (6 ECTS) - Giza gorputzaren egitura eta funtzioa II (6 ECTS) - Osasun Publikoa (6 ECTS) - Informazio sistemak eta datuen analisia (6 ECTS) - Osasun zainketei aplikatutako zientzia psikosozialak (6 ECTS)	*	- Giza gorputzaren egitura eta funtzioa III (6 ECTS) - Erizaintzaren oinarri teorikoak (6 ECTS) - P. Oinarrizko zainketak. (6 ECTS) - Antropologia, etika eta legeria (6 ECTS)	<u>PRACT.</u> <u>(6 ECTS)</u> <u>Ziklo bat</u>	*
2.	- Farmakologia (6 ECTS) - Harremanak eta komunikazioa zainketarako (6 ECTS) - Erzaintzaren oinarri metodologikoak (6 ECTS) - Erizaintza kliniko I (6 ECTS) - Bizi zikloaren erizaintza (6 ECTS)	*	- Erizaintza komunitarioa (6 ECTS) - Erizaintza kliniko II (6 ECTS) - Bizi zikloaren erizaintza II (6 ECTS)	<u>PRACT.</u> <u>(12 ECTS)</u> <u>Ziklo bat</u>	*
3.	- Erizaintza kliniko III (6 ECTS) - Erizaintza kliniko IV (10 ECTS) - Erizaintzako zerbitzuen gestioa eta kalitatea (6 ECTS)	<u>PRACT.</u> <u>(8 ECTS)</u> <u>Ziklo bat</u>	*	<u>PRACT.</u> <u>(12 ECTS)</u> <u>Ziklo bat</u>	Hautazkoak (18 ECTS) *
4.	<u>PRACTICUM (54 ECTS). 3 ziklo.</u>			GRADU AMAIERAKO LANA (6)	Defentsa

*Azterketak

6. Irudia. Practicumaren eta beste irakasgaien banaketa eta kokapena titulazioan


4.3. EBALUAZIO SISTEMA

4.3.1. Ebaluazio formatiboa

Gaitasunen eta ikasketa-emaitzen ebaluazioaren garrantzia eta baita gaitasunen, metodologiaren eta ebaluazioaren arteko lotura edo lerrokatzearen beharra hainbat egilek azpimarratu dute (25-28).

UPV/EHUko Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak (29) dio ebaluazioa hezkuntzara bideratua izango dela eta ikasleari informazio eta orientazio egokia eskaini beharko zaiola gaitasunen garatze mailaren inguruan eta ikaskuntza prozesua hobetzeko, hobekuntzak adieraziko zaizkiola. Era berean, UPV/EHUko Kanpo Praktiken Arautegian (30) esaten da irakas-tutoreak eta instruktoreak informazio eta orientazio egokia eskaini beharko dietela ikasleei gaitasunen eskuratze mailari buruz eta ebaluazioak prestakuntza izaera izan behar duela.

Hori guztia kontuan hartuta, ebaluazioa mota erabakitzeko, ebaluazioa formatiboa izateari garrantzia handia eman zaio. Ikaslea izan behar du protagonista eta bere ikasketen ardura hartu behar du, irakasle tutorearen eta instruktorearen zeregina gidari izatea delarik. Ikasleak gaitasunen garapenaren kontzientzia izatea garrantzitsua dela ikusi zen eta horretarako gogoeta-praktikak eta autoebaluazioak txertatu ziren ebaluazioa sisteman (7. irudia).



7. Irudia. Ebaluazio formatiboaren elementuak

4.3.2. Gogoeta-praktika

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Donostiako Atalean ematen den Erizaintzako ikasketetan Gogoetazko-ikasketa zeharkako gaitasun gisa garatzen hasi zen Gradua martxan jarri zenetik hainbat irakasgaietan, horien artean, practicumean. Praktika Batzordeko kideek gaia aztertu zuten titulazioa diseinatzen lagundu zuen aditu berdinarekin eta erabaki zuten ikasleak bi gogoeta-praktika egitea practicum bakoitzean: bat zikloaren erdialdean eta bestea amaieran. Gogoeta-praktika horiek egiteko, gaitasunekin lotura zuzena zuten galdera batzuk planteatu zitzaizkien ikasleei, zikloaren erdian eta amaieran erantzuteko (ikus 11. Taula).

11. Taula. Gogoeta-praktikaren galderak

Zikloaren erdian	¿Nola sentitu naiz praktiketean?, ¿zergatik?.
	“Erabiltzaileekin harremana” gaiarekin zerikusia duen egoera bat deskribatzen dut: errespetua, zuhurtasuna eta/edo konfidentzialtasuna.
	“Lan-taldearekin harremana” gaiarekin zerikusia duen egoera bat deskribatzen dut: interesa, integrazioa eta/edo eskaini dizkidaten ikasketa aukerak.
	Erizaintzako prozedurak modu desberdinean egitearekin zerikusia duen egoera bat deskribatzen dut.
	Nire praktikaren arlo positibo bat eta hobetzeko atal bat azpimarratzen ditut.
Amaieran	Egindako praktika asistentzialaren ostean, 2 alde positibo eta hobetzeko 2 atal azpimarratzen ditut.

Ikasleari gomendatzen zaio galdera bakoitzaren erantzuna 6 lerro ingurukoa izatea eta kontuan izatea norbere buruan zentratutako gogoeta-praktika izan behar duela: identifikatuz, analizatuz, balioetsiz eta ondorioak adieraziz hobekuntzari begira, hala dagokionean.

Lehen kurtsoan era zuzenduan eta bigarren kurtsoan era gidatuan egingo du, irakasle tutorearen eta instruktorearen laguntzarekin. Hirugarren kurtsotik aurrera berriz, era autonomoan. Gogoeta-praktika ikaslearen autoebaluzio orrian txertatuta dago, hurrengo atalean adieraziko den bezala.

4.3.3. Autoebaluazioa eta ebaluazioa

Aurreko ataletan aipatutako metodologia partehartzailearekin jasotako proposamenak aztertu ostean, autoebaluazio eta ebaluazio orriak diseinatu ziren. Ikaslearen autoebaluazio orrian eta instruktorearen eta irakasle tutorearen ebaluazio orrian ikasketa-emitza berdinak ageri dira baina ikaslearen autoebaluazio orrian lehen pertsonan definituta ageri dira eta instruktorearen eta irakasle tutorearen ebaluazio orrian hirugarren pertsonan.

Autoebaluazio orriak eta ebaluazio orriak atal hauek dituzte:

- Ikasketa-emitza orokorrak: praktika zikloa amaitu aurretik ezinbestean gainditu beharrekoak hori/laranja kolorearekin bereizi dira orrietan eta ezinbestekoak ez direnak berdez ageri dira.
- Ikasketa-emitza espezifikoak: bigarren kurtsotik aurrera garatzen dira eta ibilbidearen arabera, arloka bereizten dira (orrietan urdinez).
- Ebaluazio sistemaren taula: kalifikazioa zehazten duena.
- Erizaintzako Prozedura Orokorraren orria: Graduan zehar egiaztatu beharreko prozedura guztiekin.
- Gogoeta-praktika: ikaslearen autoebaluazioa orrian bakarrik ageri da.

Gradua abian jarri ostean, practicumean parte hartzen duten agente desberdinen proposamenak balioetsi ditu Ataleko Praktika Batzordeak eta beharrezkoak diren hobekuntzak ezarri. Lehen kurtsoko "Autoebaluazio-Gogoeta Praktika orria" (ikaslearentzat dena) 1. Eranskinean ikus daiteke, "Ebaluazio orria" (instruktorearentzat eta irakasle tutorearentzan dena) 2. Eranskinean eta "Erizaintzako Prozedura Orokorrak" orria (ikasleak Graduan zehar osasun arlo desberdinetan egiaztatu beharreko prozedurak adierazten dituena) 3. Eranskinean.

4.3.4. Kalifikazio sistema

Ebaluazioa formatiboaren sistema zehazteko, ikasketa-emaizzen ebaluazioa erabaki zen eta tutoretza-prozesuan integratu zen. Practicumaren ebaluazio egiteko ikusi zen oso garrantzitsua zela zikloaren erdian eta amaieran ebaluatzea, agenteen arteko *feed-back*a sortzeko. Ebaluazioa eta kalifikazioa egiteko erabaki hauek hartu ziren:

- Ikasleak bi gogoeta-praktika egin behar ditu, bat zikloaren erdian eta bestea amaieran.
- Ikasleak ikasketa-emaizta orokorren, espezifikoen (2. kurtsotik aurrera) eta gogoeta-praktikaren autoebaluazioa egin behar du zikloaren erdian eta amaieran.
- Instruktoreak ikaslea garatzen ari den ikasketa-emaizta orokorren eta espezifikoen (2. kurtsotik aurrera) ebaluazioa egin behar du zikloaren erdian eta amaieran.
- Irakasle tutoreak gogoeta-praktikak ebaluatuko ditu zikloaren erdian eta amaieran.
- Zikloaren erdian ikasketa-emaizta orokorrak eta ziklo erdiko gogoeta-praktika kalifikatuko dira eta ikasketa-emaizta espezifikoak 2. kurtsotik aurrera ebaluatuko dira, kalifikatu gabe.
- Zikloaren amaieran ezinbestekoak diren ikasketa-emaizta orokor guztiak ezinbestean garatuta izan behar dira zikloa gainditzeko.
- Ezinbesteko ikasketa-emaizzen artean, unitate/zerbitzu bakoitzeko erizainekin erabakitzen diren arloko ezagutzak finkatuko dira, hala badagokio (2. kurtsotik aurrera ebaluatzeko).
- Zikloaren amaieran ziklo amaierako gogoeta-praktika kalifikatuko da eta ikasketa-emaizta orokorrak ebaluatuko dira eta kalifikatuko dira, hala dagokionean. Era berean, 2. kurtsotik aurrera ikasketa-emaizta espezifikoak ebaluatu eta kalifikatuko dira.

Practicumaren kalifikazioa kurtsoka 12. taulan ikus daiteke, puntuazio osoa azalduz. Azken kalifikazioa inplikaturako agente guztien artean (ikaslea, instruktorea eta irakasle tutorea) adostutakoa izatea proposatzen da tutoretza-prozesuan zehaztuko den eran.

12. Taula. Practicumaren kalifikazio uneak eta puntuazioaren banaketa

Kurtsua	Zikloaren erdia				Zikloaren amaiera				Azken nota
	Ikasketa-emaizta orokorrak		Ikasketa-emaizta zehatzak	Gogoeta-Praktika	Ikasketa-emaizta orokorrak		Ikasketa-emaizta zehatzak	Gogoeta-Praktika	
	Ezinbeste koak	Ez-Ezinbeste koak			Ezinbeste koak	Ez-Ezinbeste koak			
1	2	0	ez dago	1	3	3	ez dago	1	10
2	1	0	0	1	1	2	4	1	10
3	1	0	0	1	0	3	4	1	10
4	1	0	0	1	0	3	4	1	10

4.4. TUTORETZA-PROZESUA

Tutoretza prozesua ebaluazio sistemaren ardatza da; izan ere, ebaluazioa formatiboa izatea nahi bada, praktika zikloen une zehazetan agente guztien arteko komunikazioa egokia sortzea ezinbestekoa izango baita.

Ikasketa-emaiztak zehazteko garaian bezala, metodologia partehartzailea erabili zen tutoretza-prozesua erabakitzeko. Horretarako, beste 2 lan-saio antolatu ziren, Pedagogian Doktorea den pertsona berdinen gidaritzarekin.

Lagina osatu zen borondatez izena eman zuten erizain instruktoreekin, irakasle tutoreekin eta ikasleekin. Guztira 48 pertsonak hartu zuten parte. Horietatik %69 erizain instruktoreak ziren (12 Lehen Arreta emateko osasun-zentroetakoak eta 21 ospitaletako unitate eta zerbitzu desberdinetakoak), %17 irakasle tutoreak eta %14 erizaintzako ikasleak (3. kurtsokoak).

Saio bakoitzaren hasieran, talde osoari hitzaldi bat eman zitzaien gaiari buruz informazioa izateko eta hitzaldiaren bukaeran, gero talde txikitik erabiliko zen metodologia azaldu zitzaien. Hitzaldiaren ostean, bost taldetan bildu ziren parte hartzaileak era honetan: 6-7 erizain instruktore, 1-2 ikasle, 1-2 irakasle. Bi lan-saioetan taldeen egitura berdina mantendu zen.

Lehen lan-saioerako dokumentu bat prestatu zen, partaide guztiek eskura izan zutena. Dokumentu horretan proposatzen ziren praktika zikloaren une desberdinetan agente bakoitzak egin beharreko zereginak.


Saioetan jasotako proposamenekin erabaki hauek hartu ziren:

- Praktika ziklo bakoitzean, irakasle tutoreak ikaslearekin gutxienez 3 tutoretza egitea: lehenengoa praktika zikloa hasi aurretik Fakultatean ikaslea eta irakasle tutorearen artean; bigarrena zikloaren erdian praktika lekuan ikaslea, instruktorea eta irakasle tutorearen artean; eta, hirugarrena zikloaren amaieran praktika lekuan, ikaslea, instruktorea eta irakasle tutorearen artean. Ikasle batek laguntza gehiago beharko balu, tutoretza gehiago egingo lirateke.
- Zentro/Unitate/Zerbitzu bakoitzaren aurkezpen dokumentua egitea, ikasleak praktikak hasi aurretik lekuaren ezaugarriak ezagutu ditzen (ikus 13. taula).
- Instruktoreak ikasleari harrera egitea praktikak hasten diren lehenengo egunean eta horretarako protokolo bat zehaztea eta tutoretza-prozesuan txertatzea, ikasle guztiek antzeko harrera jaso dezaten. Protokolo horretan eman beharreko informazio guztia zehazten da: pertsonen aurkezpena, egitura fisikoarena, funtzionamendua eta praktiken antolaketa, besteak beste.

13. Taula. Practicum lekuaren aurkezpen orria

Practicuma egin daiteken Zentroaren/Unitatearen/Zerbitzuaren aurkezpen orria
Zentroa/Unitate/Zerbitzua:
Enpresa:
Helbidea:
Telefonoa:
Instruktoarearen izena:
Instruktoarearen harremanetan jartzeko era (e-maila, telefonoa...):
<i>Unitate/Zentroaren ezaugarriak</i> (ikaslerentzat interesgarria izan daitekeen informazioa, praktikak hasi aurretik)
Egitura fisikoa (guneak, gela kopurua, gelako ohe kopurua...)
Erabiltzaileen ezaugarriak (biztanleri orokorra, ohiko osasun-arazoak...)
Funtzionamendua (lan-taldeak / pertsonak)
Erizainaren funtzioak (antolaketa...)
Praktiken antolaketa zikloan zehar (area desberdinetatik txandaketa...)
Kontuan izateko beste gaiak (teknika bereziak, uniforme berezia, mugak...)

Tutoretza-prozesuaren eskema 8. Irudian ikus daiteke. Bertan agertzen dira agente bakoitzak (Fakultateak/Atalak, Irakasle-tutoreak, Instruktoareak, Ikasleak) egin beharreko zeregin nagusiak practicumarekin lotutako denbora tartean (hasi aurretik, practicumean zehar eta amaitutakoan). Jarduera bakoitzean zenbaki bat agertzen da parentesi tartean. Zenbaki horiek kontuan hartuta, une bakoitzean egin beharreko zereginak zehaztuta agertzen dira 4. Eranskinean.



8. Irudia. Tutoretza-prozesuaren eskema

Tutoretza-prozesua bat dator UPV/EHUko Kanpo Praktiken Arautegiarekin non esaten den Fakultateak/Atalak zehaztuko duela ikasleari eman beharreko laguntza eta egin beharreko jarraipen prozesua. Arautegiak adierazten ditu ere: komunikazio uneak espezifikatuko direla, Unibertsitateko tutoreak eta erakunde laguntzaileko instruktoreak eraginkortasunez koordinatuko direla, Unibertsitateko tutoreak, gutxienez, hiru tutoretza saio egingo dituela ikaslearekin (lehenengoa, praktikak hasi baino lehenago; bigarrena, praktiken zikloaren erdialdean; eta, azkenekoa, praktikak amaitzear direnean) eta irakasle tutoreak eta instruktoreak informazio eta orientazio egokia eskaini beharko dietela ikasleei gaitasunen eskuratze mailari buruz eta haien ikaskuntza-prozesuan beharrezkoak diren hobekuntzei buruz (30).

Tutoretza-prozesuan zehazten da practicumaren garai desberdinetan agente bakoitzak egin beharrekoa (4. Eranskina). Oro har, practicumaren hiru garai eta egin beharreko jarduera nagusiak bereiztea gomendagarria da:

Practicuma hasi aurretik:

- Fakultateak/Atalak informazioa eta formazioa ematea ikasleei, irakasle tutoreei eta instruktoreei.
- Irakasle tutoreak tutoretza egitea ikaslearekin eta harremanetan jartzea instruktorearekin.

Practicumean zehar:

- Instruktoreak harrera egitea ikasleari.
- Irakasle tutoreak eta instruktoreak ikaslearekin gutxienez beste bi tutoretza egitea (bat zikloaren erdian eta bestea amaieran), hiru agenteak batera. Tutoretza horien aurretik agente bakoitzak dagozkion zereginak betetzea (ikasleak gogoeta-praktikak eta autoebaluazioak egitea, irakasle tutoreak eta instruktoreak ebaluazio proposamena prestatzea..) eta tutoretzetan ebaluazioa eta dagozkion kalifikazioa adostea.

Practicuma amaitzean:

- Irakasle tutoreak dokumentazioaren erregistroa amaitzea.
- Ikasleak, instruktoreak eta irakasle tutoreak gogobetetzea-inkesta betetzea.

5. PRACTICUMAREN ETA BESTE IRAKASGAIEN LERROKATZEA

Practicuma Erizaintzako Graduaren enborra bada, beste irakasgaiekin lotura zuzena eta koherentea izan behar du, izan ere, gaitasunetan oinarritutako titulazioaren ikasketa plana ezin da izan loturarik gabeko hainbat irakasgaien batura (10,20). Titulazio osoa diseinatzeko gaitasunak abiapuntua izan ziren eta practicumaren ikasketa-emaitzak zehazteko ere abiapuntua gaitasunak izan zirenez, lotura hori egotea logikoa zen. Hori egiaztatzeko, Unibertsitatean ematen ziren irakasgai bakoitzaren gaitasunak berriro aztertu ziren eta practicumaren ikasketa-emaitzak beste irakasgaietan practicuma hasi aurretik lantzen zirela egiaztatu zen.


Era berean, practicuma egiteko "giltza" funtzioa betetzen duten irakasgaiak zehaztu ziren; hau da, practicuma egiteko gaindituta izan beharreko irakasgaiak (ikus 14. taula).

14. Taula. Practicuma egiteko gaindituta izan beharreko irakasgaiak

<i>Practicuma</i>	<i>Gaindituta izan beharreko irakasgaiak</i>
2. kurtsoa (Practicum I)	Zainketa Praktiketarako Hasiera (1. kurtsoko praktikak)
3. kurtsoa (Practicum II eta Practicum III)	Zainketa Praktiketarako Hasiera (1. kurtsoko praktikak) Practicum I (2. kurtsoko praktikak).
4. kurtsoa (Practicum IV eta Practicum V)	<p>1. kurtsoko irakasgaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zainketa praktiketarako hasiera - Patologia: Oinarrizko Zainketak - Erizantzaren Oinarri teorikoak. <p>2. kurtsoko irakasgaiak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Practicum I - Farmakologia - Erizaintza Klinikoa I - Erizaintza Klinikoa II - Harremanak eta Komunikazioa Zainketetarako - Erizaintzako Oinarri metodologikoak - Bizi-zikloaren Erizaintza I - Bizi-zikloaren Erizaintza II <p>3. kurtsoko irakasgaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Practicuma II eta Practicum III - Erizaintza Klinikoa III - Erizaintza Klinikoa IV

6. PRACTICUMAREN KUDEAKETA

Practicuma antolatzeko eta kudeatzeko hainbat agentek parte hartzen dute; horien artean: Praktika Programen Arduradunak (PPA), Dekanotza edo Zuzendaritza taldeko kidea izaten dena, Zentroko Praktika Batzordeak (PPA gidari duena) eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalak (AZP). Horietaz aparte, ikasleek eta irakasle tutoreek kudeaketa zereginak ere betetzen dituzte (ikus 9. irudia).



9. Irudia. Practicumaren kudeaketan parte hartzen duten agenteak

Practicumaren kudeaketak fase desberdinak izan ohi ditu: aurreko ikasturtean hainbat zeregin egin behar dira eta practicum bakoitzaren inguruan beste batzuk. Aurreko ikasturtean, oro har, zeregin hauek egin behar izaten dira:

- Ebaluazio-tresnen eta tutoretza-prozesuaren balorazioa hobekuntzak egiteko, hala badagokio.
- Fakultateko/Ataleko Practicumaren Araudia, Practicum irakasgaien irakaskuntza gidak, egutegiak eta ordutegiak onartzea.
- Plaza kopuruaren azterketa egitea eta erakunde laguntzaileekin hitzarmenak eguneratzea eta/edo berritzea.
- Behar bereziak dituzten egoerak balioestea (kontziliazioa, practicumean laguntza gehiago behar izatea...).

- Ikasleen prestakuntza ibilbideak berrikustea.
- Aplikazioa informatikoan praktika eskaintzaren grabazioa egitea (matrikula aurretik).
- Ikasleei informazioa ematea praktiken esleipenari buruz (ibilbidea eta esleipena egiteko irizpideak, esaterako).

Practicuma hasi aurretik beste zeregin hauek egin behar dira, besteak beste:

- Ikasle bakoitzari instruktorea eta irakasle tutorea esleitu.
- Informazioa bidali erakunde laguntzaileetako arduradunei eta instruktoreei.
- Agente guztiei behar duten prestakuntza eman, euren funtzioak egoki bete ditzaten.

Practicuma kudeatzeko, garai desberdinetan egin beharreko zereginen proposamen bat, arduradunekin eta datekin, 5. Eranskinean ikus daiteke.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- (1) Uranga Iturrioz MJ. Erizaintzako prestakuntzaren eboluzio historikoa Gipuzkoan. Praktiketako gaitasunen diseinua egungo beharrei egokitzeko. [tesia interneten]. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; 2013 [kontsulta,2021/5/13]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/13404>
- (2) Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales. Boletín Oficial del Estado [internet], 260 zbk. (2007ko urriak 30) [kontsulta, 2021/5/13]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/rd/2007/10/29/1393>
- (3) Resolución de 14 de febrero de 2008, de la Secretaría de Estado de Universidades e Investigación, por la que se da publicidad al Acuerdo de Consejo de Ministros de 8 de febrero de 2008, por el que se establecen las condiciones a las que deberán adecuarse los planes de estudios conducentes a la obtención de títulos que habiliten para el ejercicio de la profesión regulada de Enfermería. Boletín Oficial del Estado [internet], 50 zbk. (2008ko otsailak 27) [kontsulta, 2021/5/13]. Eskuragarri: [https://www.boe.es/eli/es/res/2008/02/14/\(4\)](https://www.boe.es/eli/es/res/2008/02/14/(4))
- (4) Orden CIN/2134/2008, de 3 de julio, por la que se establecen los requisitos para la verificación de los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Enfermero. Boletín Oficial del Estado [internet], 174 zbk. (2008ko uztailak 19) [kontsulta, 2021/5/13]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/o/2008/07/03/cin2134>
- (5) Perrenoud Ph. Construir las competencias, ¿es darle la espalda a los saberes?. REDU. Revista de Docencia Universitaria. 2008 [kontsulta, 2021/6/2];1:1-19. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2008.6270>
- (6) López Gómez E. En torno al concepto de competencia: un análisis de fuentes. Profesorado. Revista de Currículum y Formación del Profesorado. 2016 [kontsulta,2021/6/2];20(1),311-322.Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10481/42564>
- (7) Tejada J. Acerca de las competencias profesionales. Herramientas. 1999;56,20-30.
- (8) Tejada Fernández J. El trabajo por competencias en el prácticum: cómo organizarlo y cómo evaluarlo. Revista electrónica de investigación educativa [internet]. 2005 [kontsulta, 2021/6/2];7(2),1-31. Eskuragarri: <https://redie.uabc.mx/redie/article/view/192/332>

- (9) Tejada J. El prácticum por competencias. Implicaciones metodológico-organizativas y evaluativas. Bordón: Revista de Pedagogía. 2006;58(3),121-139.
- (10) Tejada Fernández J, Ruiz Bueno C. Evaluación de competencias en Educación Superior: Retos e implicaciones. Educación XXI. 2016[kontsulta, 2021/6/2];19(1),17-38. Eskuragarri: Doi: <https://doi.org/10.5944/educxx1.12175>
- (11) Villa Sánchez A. Aprendizaje Basado en Competencias: desarrollo e implantación en el ámbito universitario. REDU. Revista de Docencia Universitaria. 2020; [kontsulta, 2021/6/2]; 18(1),19-46. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2020.13015>
- (12) Villa A, Poblete M. Practicum y evaluación de competencias. Profesorado: Revista de Currículum y Formación del Profesorado. 2004 [kontsulta,2021/6/2];8(2).1-19. Eskuragarri: <https://www.ugr.es/~recfpro/rev82ART2.pdf>
- (13) Yañiz C, Villardón L. Planificar desde las competencias para promover el aprendizaje. Bilbo: Mensajero; 2006.
- (14) Masciotra D. (2017). La compétence: entre le savoir agir et l'agir réel. Perspective de l'énaction. Éthique publique [internet]. 2017 [kontsulta,2021/6/2];19(1). Eskuragarri: <https://doi.org/10.4000/ethiquepublique.2888>
- (15) Perrenoud Ph. La transposition didactique à partir de pratiques: des savoirs aux compétences. Revue des sciences de l'éducatio [internet]. 1998 [kontsulta,2021/6/2];XXIV(3),487-514. Eskuragarri: <https://doi.org/10.7202/031969ar>
- (16) Perrenoud Ph. Construire des compétences, est-ce tourner le dos aux savoirs?. Pédagogie Collégiale. 1999[kontsulta,2021/6/2];12(3),14-22. Eskuragarri: <https://core.ac.uk/download/pdf/52977432.pdf>
- (17) Lasnier F. Réussir la formation par compétences. Montreal: Guérin; 2000.
- (18) Tardif J. L'évaluation des compétences: Documenter le parcours de développement. Montréal: Chenelière Éducation; 2006.
- (19) Paricio Royo, J. "Diseño por competencias" ¿era esto lo que necesitábamos?. REDU. Revista de Docencia Universitaria. 2020 [kontsulta,2021/6/2];18(1),47-70. Eskuragarri: <https://doi.org/10.4995/redu.2020.13205>
- (20) Zabalza MA. El prácticum en la formación universitaria: estado de la cuestión. Revista de Educación. 2011;354:21-43.
